



VILLABONAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA
(Gipuzkoa)

Gobernuz Kanpoko Erakundeei 2011. urterako Diru-laguntzak emateko Deialdia arautzen duten Oinarriak.

1. Xedea

Gobernuz kanpoko erakundeekin lan egiteko programak antolatze eta garatzeko eta herrialde pobreetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko jarduerak burutzeko diru-laguntzak ematea da deialdi honen xedea, eta baita, goian aipatutako herrialdeetako errealitatearekiko herritarren interesa sortzera zuzendutako ekintzak aurrera eramatea ere.

2. Oinarriak

Diru-laguntza eran emango dira laguntzak, eta horiek Oinarri hauek eta legez aplikagarri den arautegia bete beharko dute.

3. Laguntzetarako diru izendapena

Diru-laguntzetarako Deialdi hau gauzatzeko 2011. ekitaldirako Berezko Aurrekontuan finkatzen den diru izendapena izango da, hau da, 27.206,65 eurokoa.

Kopuru hori ondoren adieraziko den eran banatuko da:

- a) % 5 arte udalerrian bertan garatuko diren sentsibilizazioko ekintzetara bideratuko da.
Honi buruzko egitasmorik aurkeztuko ez balitz, kopuru hori d) atalean aurkezturikoari gehituko zaio.
- b) % 55 Euskal Fondoarentzat bideratuko da, gobernuz kanpoko Erakunde horren bidez ezarritako egitasmoak diruz laguntzeko.
- c) % 20 deialdiaren xedea betetzen duten egitasmoak dituzten Erakundeentzat bideratuko da, betiere, egitasmo horiek ezin badira gainontzeko ataletan sartu.
- d) % 20 udalerrri bertako taldeek garatutako egitasmoentzako izango da. Honi buruzko egitasmorik aurkeztuko ez balitz, kopuru hori c) atalean aurkezturikoari gehituko zaio.

* Ataletariko baten kontzeptuan bakarrik jaso ahal izango da diru-laguntza, beraz, ezin izango dira laguntzak metatu.

Bases Regulatoras de la Convocatoria para la Concesión de Subvenciones a Organismo o Instituciones No Gubernamentales para el año 2011.

1. Objeto

Es objeto de la Convocatoria la Concesión de ayudas económicas para la organización y desarrollo de Programas de Cooperación con Organizaciones No Gubernamentales, destinadas a realizar actuaciones que impliquen la mejora de las condiciones socio-económicas de la población de los países en vías de desarrollo; y actuaciones que promuevan el interés de los ciudadanos por la realidad de los países arriba indicados.

2. Bases

Las ayudas se concederán en concepto de subvenciones sujetándose las mismas a las presentes Bases y a la normativa aplicable legalmente.

3. Cantidad destinada a subvenciones

La cantidad destinada a la ejecución de la presente Convocatoria de subvenciones será la fijada en el Presupuesto Propio del ejercicio de 2011, esto es 27.206,65 euros.

La citada cantidad se distribuirá del siguiente modo:

- a) Hasta un 5 % del total se destinarán a acciones de sensibilización desarrolladas en el propio municipio.
En caso de que no se presentaran proyectos a este respecto, dicha cantidad se sumará a los presentados en el apartado d).
- b) El 55% del total será destinado a Euskal Fondoa para subvencionar proyectos establecidos a través de esta Organización No Gubernamental.
- c) El 20% del total se destinará a Organizaciones cuyos proyectos cumplan el objeto de la convocatoria y no puedan incluirse en el resto de los apartados.
- d) El 20% del total se destinará a los proyectos elaborados por organizaciones del propio municipio de Villabona. En caso de que no se presentaran proyectos a este respecto, dicha cantidad se sumará a los presentados en el apartado c).

* Sólo se podrá percibir subvención en concepto de uno de los apartados, no siendo por lo tanto acumulables.



VILLABONAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA
(Gipuzkoa)

4. Eskabideak

Legez eraturako eta irabazteko asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakundeek eska dezakete diru-laguntza. Beren ekintzek deialdi honen xedearekin bat egin behar dute eta Euskal Elkarte Autonomoan, Nafarroan edota Iparraldean izan behar dute egoitza soziala. Dena den, diru-laguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuraduna izateko baldintza guzti-guztiak bete beharko ditu.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira : Estatu, Administrazio Autonomo, Foru Aldundi eta Aurrezpen Erakunderen baten menpeko erakundeak.

Parte hartzen duen GBE bakoitzak, gehienez ere, proiektu bakar bat aurkez dezake arlo bakoitzerako (sentsibilizatorako bat eta lankidetzarako beste bat).

5. Erakunde eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Diru-laguntza jasotzeko aukera izateko, honako baldintzak bete beharko ditu Erakunde, Instituzio edo Elkarteak :

- a) Legez eraturako Gobernu Kanpoko Erakunde edo Instituzio bat izatea, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edo Iparraldean duena, irabazteko asmorik gabekoa eta bere ekintzak deialdi honetan zehaztutakoekin bat etortzea.
- b) Garapenerako eta lankidetzarako ekintzak antolatzen eskarmentua izatea baloratuko da. Horretarako, 2010. urtean zehar egindako ekintzak eta jasotako diru-laguntzak adieraziko dira.
- c) Diruz lagunduko diren ekintzak aurrera eramateko gaitasuna izatea. Erakundeek, inprimaki-ereduari jarraituz, ondorengoak adierazi beharko dituzte :
 - GKE bakoitzari dagozkion datuak.
 - Bertako erakundearekin duten harremana.
- d) Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzaren kitaturik edukitzea.

6. Diru-laguntzen bateragarritasuna

1. Base hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-

4. Solicitudes

Podrán solicitar subvención las Organizaciones o Instituciones No Gubernamentales legalmente constituidas, sin ánimo de lucro, cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria y con sede social en la Comunidad Autónoma Vasca, Navarra e Iparralde, y que, en todo caso, cumplan los requisitos para obtener la condición de beneficiario establecido en el art. 13 de la Ley General de Subvenciones.

Quedan excluidas de acceder a esta convocatoria: las Instituciones dependientes del Estado, la Administración Autónoma, la Diputación Foral y las Entidades de Ahorro.

Cada ONG participante podrá presentar (a lo sumo) un único proyecto, por cada modalidad de actuación (uno para sensibilización y uno para cooperación).

5. Requisitos de las Entidades Solicitantes

Para que la Organización, Institución o Asociación Solicitante tenga acceso a las subvenciones de esta convocatoria deberá reunir las siguientes condiciones:

- a) Ser una Organización o Institución No Gubernamental legalmente constituida, sin ánimo de lucro, cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria y con sede social en la Comunidad Autónoma Vasca, Navarra e Iparralde.
- b) Se valorará la experiencia en acciones de cooperación y desarrollo. Con este fin, se indicarán las acciones realizadas durante el año 2010, así como las subvenciones recibidas.
- c) Tener capacidad para sostener las acciones subvencionadas. Las organizaciones deberán indicar, siguiendo el modelo del impreso :
 - Los datos referentes a la ONG.
 - La relación que mantienen con la contraparte local.
- d) Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social.

6. Compatibilidad de las ayudas

1. Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras



laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoeekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearren, ematekoa den diru-laguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.

7. Proiektuak baloratzeko irizpideak

Diru-laguntzak banatzeko orduan, aurkeztutako ekintzak baloratzeko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- A. Herrian bertan egingo diren sentsibilizazio ekintzetarako :
 - a) Proposatutako ekintzek bideragarritasuna bermatua izatea. (Horretarako, helburuak, zehaztutako aurrekontua eta ekintzak antolatzen parte hartzen duten bitarteko eta baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak baloratuko dira).
 - b) Ekintzak komunitatea osoa inplikatuak duten programen barruan egitea.
- B. Garapen bidean diren herrialdeetan burutuko diren lankidetzak ekintzetarako :
 - a) Proposatutako ekintzek bideragarritasuna bermatua izatea :
 - a.1) Lortu nahi diren helburuak, biztanleri hartzailera, onuradunen kopurua, egitasmoa burutuko den tokian erakundeak dituen baliabide tekniko, pertsonal eta materialak hartuko dira kontuan, baita giza-baliabideen organigrama eta burutzeko egutegia ere.
 - a.2) Proiektua aurrera eramateko aurkeztutako aurrekontuari, hori finantzatzeko erakundeak egiten duen ekarpenari eta proiektua gauzatu ahal izateko beharrezkoa den gutxieneko aurrekontuari begiratuko zaie.
 - a.3) Proiektuak finantzaketa publiko

Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad.

2. En el caso de concurrencia con otras ayudas, el importe de la subvención no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En dicho supuesto, se procedería, al objeto de no rebasar dicho límite, a la reducción de la ayuda con cargo a las presentes bases.

7. Criterios de valoración de los proyectos

La distribución de las subvenciones tendrá en cuenta los siguientes criterios de selección de las acciones presentadas:

- A. Para acciones de sensibilización desarrolladas en el propio municipio :
 - a) Que las acciones propuestas tengan garantizada su viabilidad. (Para ello se valorarán los objetivos, el presupuesto definido y los medios-recursos económicos y humanos implicados en la organización y desarrollo de la actividad).
 - b) Que se realicen en el marco de programas que impliquen a toda la comunidad.
- B. Para las acciones de cooperación a realizar en los países en vías de desarrollo :
 - a) Que las acciones propuestas tengan garantizada su viabilidad :
 - a.1) Se tendrán en cuenta los objetivos que se pretendan alcanzar, la población destinataria, el número de beneficiarios, los medios técnicos, personales y materiales con que se cuenta en el lugar donde se va a desarrollar el proyecto. Al mismo tiempo, se tendrá en cuenta el organigrama de los recursos humanos y el calendario de realización.
 - a.2) Se considerará el presupuesto presentado para la realización del proyecto, la financiación que aporta la entidad y el presupuesto mínimo necesario para poder realizar el proyecto.
 - a.3) Se tendrá en cuenta que el



VILLABONAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA
(Gipuzkoa)

nahiz pribatua izatea edo/eta aurreikustea kontuan hartuko da. (Erantzukizunpeko aitoren bidez).

- b) Proiektuak baloratzeko honako arloak kontuan hartuko dira:
 - b.1) Komunitateko kideen partaidetza bultzatzea.
 - b.2) Komunitate onuradunaren kideen formazioa.
 - b.3) Herriko erakundeen garapena bultzatzea.
 - b.4) Komunitateak berak egindako eskariak izatea.

8. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaerak. Dokumentazioa :

Eskaerak udaletxean aurkeztuko dira, ondorengo dokumentazioarekin batera :

- Eskaera (I. eranskina), entitate eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonak sinatua.
- Entitate eskatzailearen estatutuak (baldin eta aurreko deialdietan ez badira aurkeztu).
- Jardueraren edo programaren proiektu xehetua, garbi adieraziz : Helburuak, zein herrialdean egingo den ekintza, ekintzaren edo jardueraren edukia, esku hartzearen aurrekariak, proiektua egiteaz eta egiteko epeaz ardura duten pertsonak edo entitateak.
- Aurreikusitako sarreraren eta gastuen aurrekontua. Edonola ere, beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako laguntzak garbi adierazi beharko dira.

9. Eskaerak aurkezteko epea

Diru-laguntzen eskaerak Villabonako udaletxean aurkeztu ahal izango dira, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 30 eguneko epean.

Udalak egiaztatuko balu aurkeztutako proiektua garatzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioan zerbait falta edo eskas geratu dela, 10 eguneko epea emango dio dokumentazioa osatzeko edo hutsegiteak zuzentzeko. Eskaera osatu edo konpondu gabe

programa haya obtenido y/o prevea la posibilidad de obtener cofinanciación pública o privada. (Bajo declaración jurada y responsable).

- b) Se valorarán los proyectos que impliquen :
 - b.1) Fomento de la participación de los miembros de la comunidad.
 - b.2) Formación de los miembros de la comunidad beneficiaria.
 - b.3) Potenciar el desarrollo de las organizaciones locales.
 - b.4) Demandas surgidas de la propia comunidad.

8. Documentación a presentar

Solicitudes. Documentación:

Las solicitudes se presentarán en el Ayuntamiento acompañadas de la siguiente documentación:

- Impreso de solicitud firmado por la persona que represente a la entidad solicitante (Anexo I).
- Estatutos de la entidad solicitante (sólo en el caso de que no se hayan presentado en convocatorias anteriores).
- Proyecto detallado de la actividad o programa con expresa mención de: Objetivos, población, a la que va dirigida la acción, contenido de la acción o actividad, antecedentes de la intervención, persona o entidad responsables de la ejecución y plazos.
- Presupuesto de ingresos y gastos previstos. En cualquier caso será necesaria la mención expresa de las ayudas a percibir de otras Instituciones públicas y privadas.

9. Plazo de presentación de las solicitudes

Las solicitudes de subvención podrán presentarse en el Ayuntamiento de Villabona en el plazo de 30 días naturales a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Si el Ayuntamiento comprobara que la documentación presentada con la solicitud fuese incompleta o insuficiente respecto al proyecto presentado, concederá un plazo de 10 días naturales para subsanar la omisión o deficiencia, transcurrido el cual sin haber



VILLABONAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA
(Gipuzkoa)

epea igarotzen bada, eskaera artxibatu egingo da besterik gabe, eta dokumentazioa eskatzaileari itzuli egingo zaio.

10. Erabakia

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Ongizate eta Emakume batzordeak aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak, eta hala badagokio, egindako txosten teknikoak, eta Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari ebazpen-proposamena egingo dio.

11. Jakinarazpena

Hartutako erabakia behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskaera aurkeztu duen erakundeari.

Erabakirik hartu gabe 3 hilabeteko epea igaro ondoren, diru-laguntza eskaera ez dela onartu ulertuko da.

12. Hitzarmena

Udalak Hitzarmen bat sinatu ahal izango du diru-laguntzak jaso dituzten erakundeekin, legez ordezkatzeko duen pertsonarekin, eta hitzarmen horrek ondorengoak jaso beharko ditu:

- Garatuko den ekintzaren edo programen xedea.
- Hori garatzeko modua, aldeek hartuko dituzten obligazioak espresuki adieraziz.
- Ekintza edo programaren hasiera eta amaiera noizko aurreikusten diren.
- Diru-laguntzaren kopurua eta hori ordaintzeko modua.
- Jasotako diru-laguntzaren gastuak justifikatzeko era eta epeak.
- Garatutako programen txostenei eta memoriei buruzko obligazioak, diruz lagundutako ekintzaren jarraipena erraztearren.

13. Diru-laguntzen ordainketa eta frogagiriak.

Erabakia jakinarazi ondoren diru-laguntzaren % 90 ordainduko da. Bigarren ordainketa diru-laguntzaren %100a zuritu ondoren egingo da.

Erakunde onuradunek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute Udaletxera:

1. Programa burutzeaz arduratuko den pertsonari egindako diru transferentziaren ziurtagiria.

procedido a la subsanación, la solicitud se archivará sin más trámite y se devolverá la documentación al solicitante.

10. Resolución

Presentada la documentación requerida, la comisión de Bienestar Social y Mujer estudiará y analizará las solicitudes recibidas y los informes técnicos elaborados en su caso, elevando propuesta de resolución a la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento.

11. Notificación

La resolución adoptada será debidamente notificada a la organización peticionaria de la subvención.

Transcurrido un plazo de 3 meses sin que se haya adoptado una resolución, la solicitud de subvención realizada se entenderá desestimada.

12. Convenio

El Ayuntamiento podrá formalizar un Convenio con las organizaciones receptoras de subvenciones, en la persona de su representante legal, que deberá contener los aspectos siguientes :

- Objeto de la actividad o programas a desarrollar.
- Forma de desarrollo de la misma con expresa mención a las obligaciones que adquieren las partes.
- Previsión de inicio y fin de la actividad o programa.
- Cuantía de la subvención y la forma en que la misma va a hacerse efectiva.
- Forma y plazos de justificación de los gastos de la subvención recibida.
- Obligaciones respecto a la emisión de informes y memorias de los programas desarrollados, con el fin de posibilitar el seguimiento de la acción subvencionada.

13. Abono de las subvenciones y justificación de la acción.

Se procederá al pago del 90% de la subvención una vez notificado el acuerdo de concesión. El segundo pago se realizará una vez justificado el 100% de la subvención.

Las Organizaciones beneficiarias estarán obligadas a presentar al Ayuntamiento la documentación que a continuación se establece :

1. Justificante de la transferencia del dinero a la persona señalada como responsable de la ejecución del



VILLABONAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA
(Gipuzkoa)

2. Burututako programa edo jardueraren memoria zehatza.
3. Diruz lagundutako gastuaren ziurtagirien originalak edo fotokopia konpultsatuak, diruz laguntzen den kopuruagatik, edo gastu horren erantzukizunpeko aitortpena.
4. Lortutako diru-laguntzek, laguntzek eta diru sarrerek edo baliabideek diru-laguntzaren kostua gainditzen ez dutela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena.

14. Zuritzeko epea

Aurreko oinarrian eskatutako dokumentazioa 2012. urteko apirilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

Hala eta guztiz ere, epe hau luzatu ahal izango da, era egokian justifikatutako arrazoiengatik eta Ongizate eta Emakume Batzordeak libreki erabakiko balu.

15. Obligazioak ez betetzea

Agiri honetan jasotako edozein obligazio bete ezean, emandako diru-laguntza gutxitzea eta/edo ordaindutakoa osorik edo haren zati bat itzul dadila eskatzea erabaki ahal izango du Udalak, bere erabakiz eta interesatuari entzunaldia eskaini ondoren. Dena den, Diru-laguntzarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

16. Ordezko araudia

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeek aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Diru-laguntzarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra dioena.

programa.

2. Memoria detallada del programa o actividad realizada.
3. Justificantes originales o fotocopias compulsadas del gasto efectuado por el importe subvencionado, o declaración jurada y responsable del mismo.
4. Declaración responsable de que las subvenciones, ayudas e ingresos o recursos obtenidos, no superan el costo de las subvención.

14. Plazo de justificación.

La documentación solicitada en la base anterior tendrá que presentarse antes del día 30 de abril de 2012.

En todo caso, dicho plazo podrá prorrogarse por motivos debidamente justificados y libremente apreciados por la Comisión de Bienestar Social y Mujer.

15. Incumplimiento de obligaciones

Ante el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones recogidas en las presentes bases, el Ayuntamiento podrá discrecionalmente reducir la subvención concedida y/o exigir la devolución de toda o parte de la subvención abonada previa audiencia del interesado. En todo caso será de aplicación lo señalado en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normativa concordante.

16. Normativa supletoria

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la normativa aplicable a las Entidades Locales, especialmente la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Villabonan, 2011ko maiatzaren 4an
ALKATEAK,

Izp.: Maixabel Arrieta Galarraga



VILLABONAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE VILLABONA
(Gipuzkoa)

I ERANSKINA / ANEXO I

GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEKIN LANKIDETZA-PROGRAMA
PROGRAMA DE COOPERACION CON ORGANIZACIONES NO GUBERNAMENTALES

Jna./And., _____ zk. NArekin,

Erakundearen

izaki, _____

n egoitza soziala
duena, _____ telefono zk.,

IFK, _____
banketxean _____
zenbakidun kontuarekin, haren titularra

helbide
elektronikoa _____ duen

Jn./And. izanik,

Don/Dña _____
_____ con D.N.I. _____,
en su calidad de _____
de la Entidad _____
con domicilio social en _____
teléfono _____, C.I.F. _____
con cuenta en la Entidad Bancaria
_____ n°
_____ cuyo titular es Don
/Dña _____,
correo electrónico _____

AZALTZEN DU :

Gobernuz Kanpoko Erakundeekin Lankidetzaprogramaren onuraduna izateko eskatutako baldintzak betetzen dituela.

ESKATZEN DU :

_____ Euroko diru-laguntza eman dakiola. Horretarako eskatu zaizkion agiriak aurkezten eta haiek benetakoak direla ziurtatzen du.

EXPONE :

Que considerando reunir las condiciones exigidas para ser beneficiario del Programa de cooperación con Organizaciones no Gubernamentales

SOLICITA :

Le sea concedida una subvención de _____ Euros, para la cual adjunta los documentos requeridos, cuyo veracidad certifico.

Villabonan, 2011ko _____ren _____(e)an

Sinadura eta zigilua / Firma y sello.

* **Harremanetarako helbidea eta telefonoa** / Domicilio y teléfono para comunicaciones:

* **Eransten diren dokumentuak** / Documentos que se adjuntan: